

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

KRIPANGO UDALA

2023ko aurrekontu orokorraren hasierako onespena

Udalbatzak, 2023ko urtarrilaren 19ko bilkura berezian, erabaki zuen hasierako onespena ematea erakunde horren 2023ko ekitaldi ekonomikoko aurrekontu orokorrari.

Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeen aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauak 15. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, espediente hori jendaurrean jartzen da hama-bost egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera, epe horretan interesdunek aukera izan dezaten aztertzeko eta udalbatzari erreklamazioak aurkezteko.

Adierazitako epean erreklamaziorik aurkezten ez bada, aurrekontua behin betiko onetsizat joko da.

Guztiekin jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da.

Kripan, 2023ko urtarrilaren 19a

Alkatea

JOSEBA FERNANDEZ CALLEJA